

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Askotan etxetik irten eta gero konturatzen gara zer bait ahaztu dugula. Horri aurre egiteko sortu dugu Remindoor: etxeko atean jartzen den pantaila fisiko bat, mugikorreko aplikaziotik programatzen dena. Pantailak eguneko zereginak eta mezuak erakusten ditu etxetik irten aurretik, eta erabilera bakoitzarekin puntu eta sariak irabazteko aukera ere bada, esperientzia motibagarri bihurtuz.

1.1 Bezero-segmentua

Produktua oso erabilgarria da familia askorentzat, goizeko korrika eta presan ezer ez ahazteko. Ikasleei eta pisukideei ere laguntzen die egunerokoa antolatzen. Baita ere, adineko pertsonentzat baliagarria da botikak edo eguneroko oharrak ez galtzeko. Azkenean, etxetik presaka ateratzen den edozein pertsonari egiten dio mesede.

1.2. Onura nagusiak

Pantailak ahaztutako gauzak gutxitzen laguntzen du, atean egoteak ikusgarritasun handia eskaintzen duelako. Estresa ere murrizten du, erabiltzaileak ez duelako azken momentuan pentsatu behar zer falta zaion. Etxeko antolaketa hobetzen da, informazioa espazio partekatu batean ikusgai dagoelako. Eta gamifikazio-sistemak ohitura onak sortzen eta eguneroko errutinak modu atseginean sendotzen laguntzen du.

1.3. Emozio-balioa

Pantaila erabiltzeak lasaitasun handiagoa ematen du, etxetik irten aurretik dena kontrolpean duela jakinda. Ez du erru edo presio sentsaziorik izaten zer bait ahaztuz gero, eta bere egunerokoan kontrol handiagoa sentitzen du. Gainera, puntu eta sari sistemari esker, erabiltzea dibertigarria eta motibatzailea bihurtzen da.

1.4. Adibide praktikoa

Imajinatu etxetik irten aurretik pantailan honakoa agertzen dela: “Motxila, giltzak, kargagailua, laneko txartela”. Begirada batekin egiaztatzen duzu dena daramazula eta ez duzu kalean sorpresarik izango.

1.5.Lehiaren aurrean abantailak

Beste produktu batzuk mugikorreko aplikazio hutsak dira, baina gurea pantaila fisiko bat da, atean beti ikusgai dagoena. Gainera, puntu eta sari mekanika berritzaileak erabiltzaileak modu naturalean erabil dezan sustatzen du. Diseinu modernoa eta etxean ondo integratzen dena du, eta aplikazioarekin konexioa sinplea eta fidagarria da.

1.6.Zergatik gure produktua aukeratu?

Gure pantaila praktikoa, erabilerraza eta teknologikoki aurreratua eta eguneroko bizitzan benetan lagungarria da. Besteen aldean balio handiagoa ematen du, fisikoa eta digitala modu eraginkorrean uzten dituelako.

REMINDOOREkin, etxetik lasai aterako zara: pantailak gogoratzen du zuk ahaztu dezakezuna.